DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Zerbitzu Orokorren Batzordea
Comisión de Servicios Generales

Ijentea, 1 | Tel. 010 - 943481012 | www.donostia.eus
20003 Donostia / San Sebastián

## 30. AKTA

## Zerbitzu Orokorren Batzordea

**Batzar mota:** Ohikoa

**Eguna:** 2026-02-16

**Ordua:** 08:00 h

**Tokia:** Loretope aretoa

**Batzordeburua:** Ana Lopez Loiarte

**Etorritakoak:**

**Zinegotziak**:

Kerman Orbegozo Uribe

Martin Ibabe Eceiza

Olatz Yarza Garagorri

Jabier Vitoria Roma

Markel Ormazabal Gaztañaga *(08:24an bilkuratik joan da 3.3. puntuan)*

Itziar Iturri Arrazola

Iñigo Garcia Villanueva

Iñaki Gabarain Gaztelumendi

Vanessa Velez de Pablos *(08:04an bertaratu da bilkurara 2. puntuaren hasieran)*

Arantza Gonzalez Garcia

**Beste zinegotzi batzuk:**

Sandra Barrenetxea Diez *(08:24an bertaratu da bilkurara 3.3. puntuan)*

**Idazkaria**: Iñaki Txintxurreta Perdiguero, Idazkari Nagusiak eskuordeturik.

BATZORDEBURUAK bilkura hasi dela adierazi ondoren, ondoko GAI-ZERRENDA hau lantzeari ekin diote:

**<u>1.- 2026ko urtarrilaren 15ean izandako bileraren akta irakurri eta onartzea, ontzat joz gero.</u>**

## ACTA Nº 30

## Comisión de Servicios Generales

**Sesión:** Ordinaria

**Día:** 16-02-2026

**Hora:** 08:00 h

**Lugar:** Sala Loretope

**Preside:** Ana López Loiarte

**Asistentes:**

**Concejales y concejalas**:

Kerman Orbegozo Uribe

Martín Ibabe Eceiza

Olatz Yarza Garagorri

Jabier Vitoria Roma

Markel Ormazabal Gaztañaga *(En el punto 3.3. abandona la sesión cuando son las 08:24 h)*

Itziar Iturri Arrazola

Iñigo García Villanueva

Iñaki Gabarain Gaztelumendi

Vanessa Vélez de Pablos *(se incorpora a la sesión al comienzo del punto nº2 cuando son las 08:04 h)*

Arantza González García

**Otros concejales y concejalas:**

Sandra Barrenetxea Díez *(se incorpora a la sesión en el punto 3.3. cuando son las 08:24 h)*

**Secretario**: Iñaki Txintxurreta Perdiguero, por delegación de la Secretaria General.

Declarada abierta la sesión por la PRESIDENCIA, se pasa a desarrollar el siguiente ORDEN DEL DÍA:

**<u>1.- Lectura y aprobación, si procede, del acta de la sesión celebrada el día 15 de enero de 2026.</u>**

12447n II

Bozketa egin eta aho batez onartu dute 29. akta, 2026ko urtarrilaren 15ean egindako bilerari dagokiona.

Se aprueba, por unanimidad, el acta número 29, correspondiente a la sesión celebrada el día 15 de enero de 2026.

**2.- Interpelazioa, Elkarrekin Donostia Taldeak aurkeztua, udal zentroak garbitzeko kontratuaren gainean.**

**2.- Interpelación, presentada por el Grupo Elkarrekin Donostia, sobre el contrato de limpieza de centros municipales.**

Arantza Gonzalez andreak hurrengo interpelazioa azaldu du:

La Sra. González García expone la siguiente interpelación:

“Arantza González García Elkarrekin Donostia udal-taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 134. artikuluaren babesean, udal-eraikinen garbiketa-kontratuaren I. eta II. loteei buruzko INTERPELAZIO hau aurkezten dio Gobernantza Irekiko eta Kulturako zinegotzi ordezkari Ana Lópezi, Zerbitzu Orokorren Batzordean.

“Arantza González García, concejala del grupo municipal Elkarrekin Donostia, al amparo del vigente artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN a la concejala delegada de Gobernanza Abierta y Cultura , Sra. López, en la Comisión de Servicios Generales, en relación con el contrato de limpieza de centros municipales lotes I y II.

JUSTIFIKAZIOA

JUSTIFICACIÓN

Udal-zentroak garbitzeko kontratuaren I. eta II. loteak ezohiko luzapenean daude; izan ere, biak amaitu dira, eta horietako batek ere ez du luzapen gehiagorik aurreikusita dagokion kontratuan.

Los lotes I y II del contrato de limpieza de centros municipales están prórroga extraordinaria, dado que ambos han vencido y ninguno de ellos tiene más prórrogas previstas en los respectivos contratos.

Tokiko Gobernu Batzarrak hartutako akordioen arabera, ezohiko luzapena egin da kontratuen xede den zerbitzua ezinbestekoa delako Udalak gaur egun duen beharrari erantzuteko. Beraz, funtsezkoa da zerbitzu hori ematen jarraitzea.

Según los acuerdos de la Junta de Gobierno Local, la prórroga extraordinaria se produce dado que el servicio objeto de los contratos es imprescindible para poder satisfacer la necesidad que actualmente tiene el Ayuntamiento, por lo que la continuidad es esencial.

Hau da, udal-zentroen garbiketa funtsezko zerbitzua da, eta Udalak ezin du zerbitzu hori ez eman. Hain zuzen ere, pandemian funtsezkotzat jo zen zerbitzuetako bat izan zen hori, COVID-19a ez transmititzeko espazioak garbi edukitzeak zuen garrantziagatik, eta, horrexegatik, zerbitzua indartu egin zen garai hartan.

Es decir, que la limpieza de los centros municipales es un servicio esencial del que el Ayuntamiento no puede prescindir. De hecho, fue uno de los servicios considerados esenciales durante la pandemia precisamente por la importancia de mantener los espacios limpios para evitar la transmisión del Covid-19, motivo por el que se reforzó el servicio durante ese tiempo.

II. loteari dagokionez, Gizatzen SA enpresa adjudikaziodunak zerbitzuaren kudeaketa ezin txarragoa egin du, eta askotariko intzidentziak izan dira: soldata-eskala bikoitza; fitxaketa-sistema; gaizki egindako nominak; ordu okerrak; enpresak langileen arduradunak etengabe aldatzea; langileek epaitegietan jarritako salaketak...

En relación con el lote II, la empresa adjudicataria Gizatzen SA ha llevado a cabo una pésima gestión del servicio con múltiples incidencias de todo tipo: doble escala salarial; sistema de fichaje; nóminas mal hechas; horas incorrectas; cambio permanente de las personas responsables del personal por parte de la empresa; denuncias en los tribunales por parte de las trabajadoras…

Gaur egun, ez dakigu udal-gobernuak zerbitzu horren lizitazioa onetsi duen, ezohiko luzapenean baitago.

A día de hoy, no nos consta que el gobierno municipal haya aprobado ya la licitación de este servicio que se encuentra en prórroga extraordinaria.

Gure ustez, funtsezko zerbitzu horrek zuzeneko kudeaketa izan beharko luke, eta ez kontratatua. Ez dago frogatuta Udalak enpresa pribatu bat kontratatu gabe zerbitua eman ezin duenik. Gainera, kontratazioak izapide eta epe luzeak dakartza, baita errekurtsoak ere KEAOren aurrean, eta horrek are gehiago luza ditzake epeak. I. eta II. loteen kasuan, kontratuetan ezarritako luzapenak amaitu, eta ezohiko luzapenak egin behar izan dira, ematen den zerbitzua funtsezkoa da eta.

Behin baino gehiagotan planteatu diogu udal-gobernuari zentroen garbiketa-zerbitzuaren zuzeneko kudeaketa bere gain hartzeko, ez baitugu uste horretarako inolako eragozpenik dagoenik, beste udalerri batzuetan egin den bezala.

Hori dela eta, hauxe da gure

INTERPELAZIOA

1. Tokiko Gobernu Batzarrak zergatik ez du onetsi oraindik udal-eraikinen garbiketa kontratuaren 2. lotearen lizitazioa?

2. Aurreikuspenen arabera, noiz egingo da kontratu berriaren lizitazioa eta behin betiko adjudikazioa?

3. Udal-gobernuak zergatik ez du bere gain hartzen udal-zentroak garbitzeko funtsezko zerbitzuaren zuzeneko kudeaketa?

Donostia, 2026ko otsailaren 6a

Arantza Gonzalez Garcia
Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotzia".

Ana Lopez eta Arantza Gonzalez andreek hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

**3.- Bozeramaileen Batzordeak bidalitako ekimenak, baldin bada.**

**3.1.- Interpelazioa, PP Taldeak aurkeztua, bandera nazionalaren lapurretaren gainean.**

Hurrengo interpelazio hau irakurritzat eman dute:

"Talde Popularreko zinegotzi Tomas Pascua Martinek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 134. artikuluaren babesean, INTERPELAZIO hau

Creemos que este servicio esencial debería ser de gestión directa y no contratado. No está demostrado que el Ayuntamiento no pueda hacerlo sin tener que contratarlo a una empresa privada. Además, la contratación supone trámites y plazos largos, e incluso recursos ante el OARC que pueden alargarla más aún. En el caso de los lotes I y II, se han tenido que prorrogar de manera excepcional una vez agotadas las prórrogas establecidas en los contratos, dado que el servicio que se presta es esencial.

En diversas ocasiones hemos planteado al gobierno municipal la posibilidad de asumir la gestión directa del servicio de limpieza de centros, ya que no creemos que haya ningún impedimento para hacerlo, como ya se ha hecho en otros municipios.

Por ello, realizamos la siguiente:

INTERPELACIÓN

1. ¿Por qué razón la Junta de Gobierno Local no ha aprobado ya la licitación del contrato de limpieza de centros Lote 2?

2. ¿Cuándo se prevé la licitación y la adjudicación definitiva el nuevo contrato?

3. ¿Por qué razón el gobierno municipal no asume la gestión directa del servicio esencial de limpieza de los centros municipales?

Donostia, a 6 de febrero de 2026

Arantza González García
Concejala del grupo municipal Elkarrekin Donostia".

Intervienen en este punto las Sras. López Loiarte y González García, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**3.- Iniciativas remitidas, en su caso, por la Junta de Portavoces.**

**3.1.- Interpelación, presentada por el Grupo PP, sobre el robo de la bandera nacional.**

Se da por leída la siguiente interpelación:

"Tomás Pascua Martín, Concejal del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la

egiten dio Jon Insausti Masterrena alkateari, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Zerbitzuak), bandera nazionala lapurtzeari buruz.

JUSTIFIKAZIOA

Joan den ostiralean, urtarrilak 30, goizeko lehen orduan, bi kaputxadunek Espainiako bandera lapurtu eta ihes egin zuten. 2012. urteaz geroztik, bandera nazionala kaleko gainerako banderen ondoan dago, Alderdieder plazako udaletxeko atearen ondoan. Hori dela eta, bandera guztiak oso eskura daude. Hain da hala, ezen lehen ere lapurtu baitituzte, Espainiako bandera ez ezik, beste bandera batzuk ere, hala nola ikurrina eta Gipuzkoako bandera. Horregatik, gaur egun, Udaltzaingoak banderak udaletxe barruan gorde behar izaten ditu gauez, eta berriz ere goizean jarri, ekintza bandalikoak saihesteko.

Hori dela eta, hauxe da gure

INTERPELAZIOA

1. Udal Gobernuak zergatik ez ditu banderak berriro jartzen Udalaren fatxadako balkoietan, 2012. urtea baino lehen zeuden bezala?
2. Zer neurri hartuko ditu Udal Gobernuak udaletxeko banderekin lotutako gertaera bandalikoak saihesteko?
3. 2012an bandera guztiak kalean jaitsi zirenetik, zenbat lapurreta edo intzidentzia izan dira bandera horiei dagokienez?

Donostia, 2026ko otsailaren 2a

Tomás Pascua Martín
Udaleko Talde Popularrezko zinegotzia".

Martin Ibabe jaunak eta Vanessa Velez andreak hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

**3.2.- Interpelazioa, PP Taldeak aurkeztua, Adamuzen hildakoengatik dolu ofiziala deklaratu zuen urtarrilaren 19ko 37/2026 Errege Dekretua ez betetzeari buruzkoa.**

Hurrengo interpelazio hau irakurritzat eman dute:

siguiente INTERPELACIÓN al Alcalde, D. Jon Insausti Maisterrena, en la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos, sobre el robo de la bandera nacional.

JUSTIFICACIÓN

El pasado viernes, 30 de enero, a primera hora de la mañana, dos encapuchados robaron la bandera de España y se dieron a la fuga. Desde el año 2012, la bandera nacional ondea junto al resto de banderas a pie de calle, junto a la puerta del Ayuntamiento de la Plaza de Alderdi Eder, lo que hace que el conjunto de las banderas estén muy accesibles. Tanto es así, que en ocasiones anteriores han sido sustraídas, además de la bandera de España, otras de las banderas, como la Ikurriña o la bandera de Gipuzkoa. Por ello, actualmente, la Guardia Municipal tiene que guardar por la noche las banderas en el interior del Ayuntamiento, para volver a colocarlas por la mañana, y evitar así actos vandálicos.

Por estos motivos presentamos la siguiente

INTERPELACIÓN

1. ¿Cuáles son los motivos por los que el Gobierno Municipal no vuelve a situar las banderas en los balcones de la fachada del Ayuntamiento, como estaban dispuestas antes del 2012?
2. ¿Qué medidas se plantea tomar el Gobierno Municipal para evitar que sigan sucediendo actos vandálicos con relación a las banderas del Ayuntamiento?
3. ¿Desde que en 2012 se bajasen todas las banderas a pie de calle, cuantos robos o incidencias se han contabilizado con relación a dichas banderas?

En San Sebastián, a 2 de febrero de 2026

Tomás Pascua Martín
Concejal del Grupo Municipal Popular".

Intervienen en este punto el Sr. Ibabe Eceiza y la Sra. Vélez de Pablos, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**3.2.- Interpelación, presentada por el Grupo PP, sobre el incumplimiento del Real Decreto 37/2026 de 19 de enero, por el que se declaró luto oficial por los fallecidos en Adamuz.**

Se da por leída la siguiente interpelación:

"Talde Popularreko zinegotzi Tomas Pascua Martinek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 134. artikuluaren babesean, INTERPELAZIO hau egiten dio Jon Insausti Masterrena alkateari, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Zerbitzuak), Adamuzen hildakoengatik luto ofiziala deklaratu zuen urtarrilaren 19ko 37/2026 Errege Dekretua ez betetzeari buruz.

JUSTIFIKAZIOA

Kordobako Adamuz udalerriaren parean gertatutako trenbide-istripua dela eta, Espainiako Gobernuak hiru eguneko luto ofiziala dekretatu zuen, 2026ko urtarrilaren 20ko 00:00etatik 2026ko urtarrilaren 22ko 24:00etara (37/2026 Errege Dekretua, urtarrilaren 19koa, Adamuzen gertatutako tren-istripuan hildakoengatik dolu ofiziala deklaratzen duena). Errege Dekretuaren 1. artikuluak ezarri zuen, adierazitako epean, bandera nazionalak masta erdian egon behar zuela jarrita eraikin publiko guztietan. Udal Gobernuak ez du agindu hori bete dolu ofizialeko aldi osoan.

Hori dela eta, hauxe da gure

INTERPELAZIOA

1. Udal Gobernuak zergatik ez du urtarrilaren 19ko 37/2026 Errege Dekretua bete eta bandera nazionala masta erdian jartzea erabaki, Adamuzen izandako tren-istripuan hildakoenganako errespetua adierazteko?

Donostia, 2026ko urtarrilaren 27an

Tomás Pascua Martín
Udaleko talde Popularraren zinegotzia".

Ana Lopez eta Vanessa Velez andreek hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

"Tomás Pascua Martín, Concejal del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN al Alcalde, D. Jon Insausti Maisterrena, en la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos, sobre el incumplimiento del Real Decreto 37/2026 de 19 de enero, por el que se declaró luto oficial por los fallecidos en Adamuz.

JUSTIFICACIÓN

Con motivo de les accidente ferroviario ocurrido a la altura del municipio cordobés de Adamuz, el Gobierno de España decretó (Real Decreto 37/2026, de 19 de enero, por el que se declara luto oficial por los fallecidos en el accidente ferroviario acaecido en Adamuz) 3 días de luto oficial desde las 00 horas del día 20 hasta las 24 horas del día 22 de enero de 2026. El artículo 1 del Real Decreto estableció que durante el plazo indicado, la Bandera Nacional ondeará a media asta en todos los edificios públicos. El Gobierno Municipal ha incumplido dicho mandato durante todo el periodo de luto oficial.

Por estos motivos presentamos la siguiente:

INTERPELACIÓN

1. ¿Cuáles son los motivos por los que el Gobierno Municipal, en cumplimiento del Real Decreto 37/2026 de 19 de enero, no ha dispuesto que la Bandera Nacional ondee a media asta, en señal de respeto por los fallecidos en el accidente ferroviario en Adamuz?

En San Sebastián, a 27 de enero de 2026

Tomás Pascua Martín
Concejal del Grupo Municipal Popular".

Intervienen en este punto las Sras. López Loiarte y Vélez de Pablos, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**3.3.- Interpelazioa, EH Bildu taldeak aurkeztua, Udaltzaingoaren bulegoetan indarkeria matxistaren biktimei arreta emateko eremua egokitzeari buruzkoa.**

Hurrengo interpelazio hau irakurritzat eman dute:

"EH BILDU udal-taldeko zinegotzi Sandra Barrenetxea Diezek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 134. artikuluaren babesean, Udaltzaingoaren bulegoetan indarkeria matxistaren biktimak artatzeko gunea egokitzeari

**3.3.- Interpelación, presentada por el Grupo EH Bildu, sobre la adecuación de la zona de atención a víctimas de violencia machista en las dependencias de la Guardia Municipal.**

Se da por leída la siguiente interpelación:

"Sandra Barrenetxea Díez, concejala del Grupo Municipal de EH Bildu, al amparo del artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN a la Delegada Ane Oyarbide para su respuesta oral en la Comisión

buruzko INTERPELAZIO hau egiten dio Ane Oyarbide zinegotzi ordezkariari, Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean ahoz erantzun dezan.

JUSTIFIKAZIOA

Joan den urtean, obra horren egoerari buruzko galdera bat egin genuen, Udalaren kontratazio-planean 2025eko bigarren hiruhilekorako planifikatua zegoela eta. Martin Ibabe zinegotzi ordezkariak erantzun zuen galdera egin zen unean (2025eko apirila) planifikatuaren barruan sartzen zen aldian geundela oraindik.

Obra ez da kontratatu, ez eta gauzatu ere, eta berriro ageri da Udalaren kontratazio-plangintzan, kasu honetan 2026ko lehen hiruhilekorako. Gainera, 2025ean, aurrekontu publikoen genero-inpaktuari buruzko txostenak jasotzen zuen 75.000 euro inbertituko zirela obra horretan; gero, ordea, kopuru hori 63.000 eurora murriztu zen 2025ean, eta berriz ere 62.000 eurora murriztu da 2026an. Uste dugu urtebeteko atzerapena nahikoa badela kontu honi buruzko balorazioa egiteko, batez ere martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 63. artikuluan jasotako arau-agindu bat delako eta erakundeak indarkeria matxistaren biktimei arreta emateko espazioak egokitzera behartzen dituelako.

Hori dela eta, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako INTERPELAZIOA:

- Zergatik ez zen abian jarri 2025ean planifikatutako kontratazioa?
- Zergatik murriztu da gero eta gehiago obra honetan aurreikusitako inbertsioa, obrei eta eraikuntzari lotutako kostuak urtez urte handitzen ari badira?
- Zer aurreikuspen egiten duzue obra honi buruz? 2026ko lehen hiruhilekoaren erdian gaudenez, martxan al dago lizitazioa?
- Zenbat emakume artatu dira azken urtean haien beharretara egokitu gabeko espazio batean?

Donostian, 2026ko otsailaren 6a

Sandra Barrenetxea Diez
EH Bildu udal taldeko zinegotzia”.

Martin Ibabe jaunak eta Sandra Barrenetxea andreak hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

de Servicios a las Personas, en relación con la adecuación de la zona de atención a víctimas de violencia machista en las dependencias de la Guardia Municipal

JUSTIFICACIÓN

El pasado año realizamos una pregunta respecto a la situación de esta obra, que aparecía planificada en el plan de contratación municipal para el segundo trimestre de 2025. El concejal Delegado Martín Ibabe nos respondió que, en el momento en que se realizó la pregunta (abril de 2025), aún estábamos en el periodo acorde a lo planificado.

La obra ni se ha contratado ni se ha ejecutado y de nuevo aparece en la planificación de la contratación municipal, en este caso, para el primer trimestre de 2026. Además, en 2025, el informe de impacto de género de los presupuestos públicos recogía que se invertirían 75.000 euros en esta cuestión, que luego se redujeron a 63.000 en 2025 y que en 2026 se vuelven a reducir a 62.000 euros. Entendemos que un año de retraso es el suficiente como para realizar una valoración de esta cuestión, principalmente porque se trata de un mandato normativo recogido en el artículo 63 del Decreto Legislativo 1/2023 del 16 de marzo y que obligue a las instituciones a adecuar los espacios de atención de las víctimas de violencia machista.

Por todo ello, la concejala que subscribe presenta la siguiente INTERPELACIÓN

- ¿Por qué motivo no se puso en marcha la contratación planificada en 2025?
- ¿Por qué motivos se reduce cada vez más la inversión prevista en esta obra, cuando los costes ligados a obras y construcción en realidad, aumentan año tras año?
- ¿Cuál es la previsión que tiene respecto a esta obra? Ya que estamos a mitad del primer trimestre de 2026, ¿está en marcha la licitación?
- ¿Cuántas mujeres han sido atendidas en un espacio no adaptado a sus necesidades en el ultimo año?

En San Sebastián, a 6 de febrero de 2026

Sandra Barrenetxea Díez
EH Bildu udal taldeko zinegotzia”.

Intervienen en este punto el Sr. Ibabe Eceiza y la Sra. Barrenetxea Díez, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada

al Diario de Sesiones.

---------------

Eta bestelako aztergairik ez dagoela, Batzordeburuak goiburuan adierazitako eguneko zortziak eta hogeita zortzian bilkura amaitutzat jo du; eta NIK, idazkari gisa, horren guztiaren FEDE EMATEN DUT.

Y no habiendo más asuntos, la Presidenta declara terminada la sesión a las ocho horas y veintiocho minutos de la fecha expresada en el encabezamiento; de todo lo cual, YO, EL SECRETARIO, DOY FE.

O.E./Vº Bº
BATZORDEBURUA / LA PRESIDENTA

Ana Lopez Loiarte

Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado digitalmente :
Iñaki Txintxurreta (17/03/2026 10:02 CET), Ana Lopez Loyarte (17/03/2026 10:18 CET)
Egiaztatzeko / Verificación : https://www.donostia.eus/scve
Eskaera kodea / Código de petición : LJVD-JW4L-828J-BO82